



# ERRI Pape Ra

2019ko Abendua • 50. zenbakia

## Zuzendaritza Batzorde BERRIA DU UEMAK, AGINTALDI BERRIKO ILDOEI ETA ERRONKEI ERANTZUTEKO **2-3 ORR.**



### Hezkuntza proiektua, BERRITUTA

[uema.eus/hezkuntza](http://uema.eus/hezkuntza) webgune berria, eskolen esku  
Arnasguneei buruzko hezkuntza proiektua  
BERRITU DU UEMAK, irakasleentzako  
UNITATE DIDAKTIKO ETA BIDEO BERRIEKIN. **4 ORR.**

### Arnasa Gara

HERRITARRAK KONTZIENTZIATZEKO kanpaina abian da  
Arnasguneen garrantzia nabarmentzeko  
kanpaina abiarazi dute UEMAK eta beste  
ZENBAIT ERAKUNDE PUBLIKOK. **5 ORR.**

# UDALERRI EUSKALDUNAK GARATZEKO ETA UEMA SENDOTZEKO ZUZENDARITZA BERRIA

AGINTALDI HONETARAKO ZUZENDARITZA BATZORDE BERRIA HAUTATU DU UEMAREN BATZAR NAGUSIAK



Getarian egin zuen UEMAK agintaldi honetako lehen Batzar Nagusia, urriaren 5ean, eta hurrengo lau urteotarako zuzendaritza batzordekideak hautatu zituzten alkate eta zinegotziek.

## Batzar nagusia, urriaren 5ean, Getarian

2019-2023 agintaldiko lehen batzar nagusia egin zuen UEMAK urriaren 5ean, Getarian, eta Iraitz Lazkano Elgetako alkatea hautatu zuten batzarkideek UEMAREN lehendakari, hurrengo lau urteotarako. Lehendakariordea, berriz, Aritz Abaroa izango da, Bermeoko alkatea. Lazkanorekin eta Abaroarekin batera, UEMAREN Zuzendaritza Batzordea osatuko duten beste bederatzikideak ere hautatu zituzten batzarrean bildu ziren alkateek eta zinegotziek.

## ERRONKA: LURGUNEA ZABALTzea eta arnaguneak sendotzea

Gaur egun 87 udalerrri dira UEMAKO kide, eta guztien artean 250.000 biztanle inguruko lurgune euskalduna osatzen dute. Gainera, hurrengo hilabeteotan UEMARA sartzeko asmoa agertu dute udal gehiagok eta, beraz, udalerrri euskaldunen lurgunea zabaltzeaz gain, euskararen arnaguneak sendotzea izango da agintaldi berriko erronketako bat.

Lehendakari kargua hartu orduko egindako lehen adierazpenetan, Iraitz Lazkanok eskerrak eman zizkien batzarkideei, jasotako konfiantzagatik, eta baita aurreko agintaldian lehendakari izandako Josu Labakari eta zuzendaritzan berarekin batera lanean aritu ziren gainerako zuzendaritzakideei ere.

UEMAREN lehendakaritzan lekukoa hartuta, kargua ilusioz eta arduraz hartu duela adierazi zuen Lazkanok, "UEMA euskararen normalizazioan aitzindari eta eredu den erakunde garrantzitsua" delako: "Sendo dagoen erakunde baten gidaritzara hartu dut, udalerrri euskaldunek euskararentzat duten garrantzia lehen lerroa eramatea lortu baitu UEMAK azken urteotan. Dena dela, euskararen normalizazioan jauzi kualitatiboa emateko eta urrats sendoak egiteko agintaldia izan behar du honek. Horretarako, ausardia, adostasuna eta konpromisoa ezinbestekoak dira".

## "UDALERRI EUSKALDUNEK EUSKARARENTZAT DUTEN GARRANTZIA LEHEN LERROA ERAMATEA LORTU DU UEMAK AZKEN URTEOTAN"

Adostasunari dagokionez, UEMAN ordezkariak izango dituzten alderdi nagusiek lehendakaria, lehendakariordea eta Zuzendaritza Batzordea adostasunez onartu izana ere garrantzitsua da Lazkanorentzat. "Ardura eta erronka handia da UEMAREN lehendakari postua, baina Zuzendaritza Batzordea izango dut lagun. Kultura politikoa ezberdinetako kideak daude ordezkariak

bertain, eta hori ere nabarmendu nahiko nuke. Azken batean, aurrera egingo baldin badugu, elkarlana ezinbestekoa baita. Elkarlana alderdien artean, noski. Baina baita erakunde publikoen, herritarren eta euskalgintzaren artean ere".

Azkenik, Elgetako alkate den heinean, herri txikien garrantzia ere nabarmendu nahi izan du Lazkanok. "UEMAK udalerrri euskaldunen garapenaren inguruko hausnarketa sakona egin du urte hauetan, beste hainbat eragilerekin batera. Udalerrri euskaldunei bizirik eusteko ezinbestekoa da udalerrri euskaldunak garatzea, eta herri txikiak lurralde garapenean duten egitekoa eta garrantzia oso kontuan hartzea. Lehen egunetik aipatu nahiko nuke ildo honetan ere bidea egiteko beharra, herri txikien izaerari eusteko eta euskarari arnasa ematen segitzeko".

## ADOSTASUNEZ ONARTUTAKO KARGUAK eta ZUZENDARITZA BATZORDEA

UEMAREN lehendakaria, lehendakariordea eta zuzendaritza batzordekideak adostasunez hautatu zituzten Batzar Nagusiak. UEMAKO kide diren 86 udalek duten ordezkariaren arabera osatzen da Zuzendaritza Batzordea, beti ere herrien aniztasun politikoa ahal den egokien islatuz, parekidetasun eta lurraldetasun irizpideekin batera.

**“Jauzi KUALITATIBOA emateko eta URRATS SENDOAK egiteko AGINTALDIA izan BEHAR DU HONEK. HORRETARAKO, ausardia, adostasuna eta KONPROMISOA ezinbestekoak DIRA”**

**Iraitz Lazkano**

UEMAko  
lehendakaria.  
ELGETA.  
Alkatea.  
EH Bildu.



**ARITZ  
ABAROA**  
UEMAko  
lehendakariordea.  
BERMEO.  
Alkatea.  
EAJ.



**LIERNI  
ALTUNA**  
ARAMAIO.  
Alkatea.  
EH Bildu.



**JONE  
ANSOTEGI**  
AULESTI.  
Alkatea.  
EH Bildu.



**XABIER  
BALERDI**  
TOLOSA.  
Zinegotzia.  
EAJ.



**AITOR  
ELEXPURU**  
BERA.  
Alkatea.  
EH Bildu.



**ILLART  
GUMUZIO**  
IGORRE.  
Alkatea.  
EH Bildu.



**BEATRIZ  
MURO**  
ARESO.  
Zinegotzia.  
Independentea.



**NEREA  
ODRIZOLA**  
ZESTOA.  
Zinegotzia.  
EH Bildu.



**JOSEBA  
PALENZUELA**  
MUTRIKU.  
Alkatea.  
EH Bildu.



**IRUNE  
URBIETA**  
ZARAUTZ.  
Zinegotzia.  
EAJ.

## 'Hedatu' sortu eta eskola guztien eskura utzi du UEMAk, euskararen arnasguneei buruzko hezkuntza proiektua berrituta, unitate didaktiko eta bideo berriekin

Euskararen arnasguneei buruzko hezkuntza proiektua berritu, moldatu eta garatu du UEMAk, eta ikasturte berriarekin batera UEMako kide diren herrietako eskoletan hasi dira teknikariak unitate didaktikoak aurkezten. Eduki guztia eraberrituta, [uema.eus/hezkuntza](http://uema.eus/hezkuntza) webgune berrian dute ikusgai irakasleek. Euskararen eta hizkuntza ekologiaren inguruan ikasgelan landu daitezkeen gaien inguruko bideoak ere prestatu ditu UEMAk, hainbat laguni egindako elkarrizketekin.



Webgune berrian irakasleek mailaz maila hautatu ditzakete unitate didaktikoak eta gaia lantzeko materialak.

Duela hiru urte aurkeztu zuen UEMAk hezkuntza proiektua, udalerrri euskaldunetako eskoletarako. Izan ere, UEMAREN ildo estrategikoetako bat da herritarrak sentsibilizatzea eta ahalduntzea, arnasguneen garrantziaz ohartu daitezzen.

2016an, lehen ikasturtean, esperimentazio fasea abiarazi zuen UEMAk, eta Alegia, Azpeitia, Orio, Zarautz eta Zumaiaiko zazpi ikastetxetan landu zuen hezkuntza proiektua, 400 ikasle ingururengana iritsiz. Jasotako ekarpenekin eta egin beharreko moldaketekin, duela bi urte sistematizatu zen proiektua, eta harrezkero UEMAKo kide diren herrietako eskola guztiek dute ikasgelatan lantzeko aukera.

Aurten, ikasturte berria hasterako, unitate didaktiko guztiak moldatu, berritu, aztergaien inguruko bideoak prestatu eta [uema.eus/hezkuntza](http://uema.eus/hezkuntza) webgune berrian bildu ditu UEMAK.

Eskolek eta irakasleek soilik dute webgune berrirako sarbidea, pasahitzarekin. Behin webgunera sartuta, ikasmila hautatu dezakete, eta maila bakoitzari dagokion unitate didaktikoak izango dituzte eskura.

Unitate didaktiko bakoitzak, berriz, ikaslearen fitxa, irakaslearen fitxa eta dagozkion material osagarria du: bideoak, PPTak, ariketetarako fitxak edo PDFak eta antzekoak.

### Hainbat bideo eta elkarrizketa, unitate didaktikoak lantzeko

Unitate didaktikoei dagozkien gaiak lantzeko, hainbat laguni elkarrizketak egin eta dozena bat bideo prestatatu ditu UEMAk, gazteentzat erreferentek diren musikari, aktore, kirolari, bertsolari edo telebistako aurkezleekin. Euskarak zergatik egiten dituen berezi, beraientzat arnasguneak zer eta zein diren, euskararen alde kontzienteki zer egiten duten, euskaldun izateak harrotasunik sortzen ote dien, kontzientziaz ala inertziaz aritzen diren euskaraz eta antzeko galderei erantzun diete.

Erantzunekin, unitate didaktiko bakoitzean ikasgelan landu nahi diren gaiak osatzen dituzte irakasleek. Hori guztia, unitate didaktiko bakoitzaren PDFetan txertatuta dago, material osagarriari dagokion esteka klikagarriekin, irakasleen jarduna erabat errazteko.



Ikasleek unitate didaktikoetan lantzen dituzten gaiak bideoekin osatu nahian, hainbat lagun elkarrizketatu ditu UEMAk, arnasguneei eta euskarari buruzko galderak eginaz: Zuriñe Hildago, Mikel San Jose, Aitziber Garmendia, Ekain Iburguren, Julen Telleria, Antton Telleria, Maddalen Arzallus, Iholdi Beristain, Manu Bendala, Nerea Ibartzabal, Amets Arzallus eta Jon Maiak euskararekin zer-nolako harremana duten bildu dute bideoetan, besteak beste.

## 'ARNASA GARA' KANPAINA ABIAN DA, ARNASGUNEEN GARRANTZIA NABARMENTZECO ETA HERRITARRAK KONTZIENTZIATZECO

**UDALERRI EUSKALDUNAK ETA EUSKARAREN ARNASGUNEAK EUSKARARENTZAT ZEIN GARRANTZITSUAK DIREN ERAKUSTEKO KANPAINA ABIARAZI DUTE UEMAK ETA HAINBAT ERAKUNDE PUBLIKOK, ELKARLANEAN. HERRITARRAK KONTZIENTZIATU NAHI DIRA, ETA HERRIETAN EGITEN ARI DIREN EKITALDIEZ GAIN, 'KARTZELA' WEBSERIEA IZANGO DA KANPAINAREN BITARTEKOETAKO BAT.**

UEMAk, 3ko Itunak (Eusko Jaurlaritzza, Nafarroako Gobernu eta Euskararen Erakunde Publikoa), Bizkaiko eta Gipuzkoako foru aldundiek eta Euskal Herri osoko 22 udalerrik *Arnasa gara* kanpaina abiarazi dute udazken honetan.

Ekimenaren helburua euskararen arnaseguneetako biztanleak ahalduntzea eta kontzientziatzea da, gune horiek euskararen indarberitzean duten garrantzia jabetu daitezten. Arnaseguneak, demografikoki euskal hiztun asko dituzten guneak dira. Udalerrri horietan euskara modu naturalean transmititzen da, eta bertako herritarrentzat ohikoa da euskaraz egitea eguneroko bizimodua.

### ABIARUNTUA

1991n Joshua Fishman soziolinguistik nabarmendu zuen zein garrantzitsua den hizkuntza baten biziraupenerako eta biziberritzerako *breathing space* edo arnasegune bat. Harrezkero, arnaseguneak zaintzea estrategikotzat hartu da mundu mai-



'Arnasa gara' kanpainaren harira hainbat ekitaldi ari dira egiten udalerrri euskaldunetan. Argazkian, Diman egindakoa.

lako hizkuntza gutxituen biziberritze-prozesuetan. Euskara ez da salbuespena izan, eta azken hamarkadetan lan handia egin da arlo horretan. UEMA ere, nolabait, oinarri horretatik abiatuta sortu zen, arnaseguneak berariaz zaintzeko.

Kanpainak bi fase izango ditu. Lehenengoan, udalerrri euskaldunetako herritarrak kontzientziatzeko ekitaldiak egingo dira. Bigarren fasean, berriz, gainerako euskal herritar guztiei zabalduko zaie mezua, arnaseguneen garrantzia jabetu daitezten.

## 'KARTZELA' WEBSERIEA, KANPAINAREN MEZUA ETA ARNASGUNEETAKO ERREALITATEA ZABALTZEKO

*Arnasa gara* kanpainaren mezua euskal herritar guztiengana helarazteko, sarean eta EiTbren bidez zabalduko den *Kartzela* webseriea sortzea erabaki dute antolatzaileek. Hiru Damatxo ekoiztetxea arduratu da zazpi atalen ekoizpenaz. Uztailean grabatu zuten, urriaren hasieraz geroztik herrietako ekitaldietan ikusi ahal izan dira lehen bi atalak, eta laster sarean izango da ikusgai.

Kanpainaren elementu berritzailea da, ez baita sekula egin arnaseguneetako egoera soziolinguistikoa oina-

rrizat duen fikziozko lanik. BECen Bertsolari Txapelketa nagusiaren finalean harrapatuta geratu diren sei lagun dira istorioaren protagonistak. Arnaseguneetako herritarrak dira guztiak. Pixkanaka topo egingo dute elkarrekin, eta eraikinetik nola atera pentsatzen hasiko dira. Horretan ari direla sortuko dira lehen galderak: zenbat egunez iraun beharko dute BEC barruan? Nola moldatuko dira hain izaera desberdina duten sei pertsona elkar ulertzeko? Euskalkia baztertu eta batura erabiliko al dute?



Arnaseguneetako aktoreek hartu dute parte webseriean.

### Kanpainaren webguneak:

- **arnasagara.eus:** Kanpainaren informazio orokorra, bloga, albisteak...
- **KARTZELA.eus:** Webseriearen atalak.



# Iñaki Arregi Beka

## ERDALDUNEK EUSKARAREKIKO DUTEN HARREMANA ETA GARAPEN ESTRATEGIAK ABIARAZTEKO OINARRIAK AZTERTUKO DITUZTE IÑAKI ARREGI BEKAREN LEHEN IRABAZLEEK

**UDALERRI EUSKALDUNEN GARAPENA AZTERTZEKO, IKERKETA SUSTATZEKO ETA EUSKAL SOZIOINGUISTIKAREN INGURUKO EZAGUTZA AREAGOTZEKO, IÑAKI ARREGI BEKA SORTU DU AURTEN UEMAK, HAINBAT ERAKUNDE ETA ERAGILEREN LAGUNTZAREKIN. LEHEN DEIALDIAN, UDALERRI EUSKALDUNEN GARAPENAREKIN LOTUTAKO BI IKERLAN LAGUNDUKO DIRA DIRUZ, BAKOITZA 5.000 EUROREKIN. AURKEZTU DIREN LANEN ARTEAN, ERAIMANAIAK BI PROIEKTU SARITU DITU: JOSEBA GARMENDIA EKONOMIALARIARENA, ETA ENARA EIZAGIRRE, EDURNE URRESTARAZU ETA EKHI ZUBIRIAK OSATUTAKO IKERKETA LAN-TALDEARENA. BEDERATZI HILABETEKO EPEA IZANGO DUTE LANAK AMAITZEKO ETA AURKEZTEKO.**



Eusko Jaurlaritzako, Gipuzkoako Foru Aldundiko, UEMako eta Kontseiluko ordezkariak, saridunekin (erdian), bekaren saridunak eta proiektu irabazleak aurkezteko urrian Donostian egindako agerraldian.

Udalerrri euskaldunek eta arnasmuneek euskararen biziberritzean eta normalizazioan duten garrantziaren ezagututa, eta arnasmuneak garatzeko hausnarketa eta ikerketa ere ezinbestekoa delakoan, UEMak Iñaki Arregiren omenez sortutako beka lagundu eta babestu dute hainbat erakundek eta eragilek.

Horietako hainbat ordezkari agerraldia egin zuten Donostian urriaren 21ean, bekaren lehen deialdiko irabazleak eta hauen proiektuak aurkezteko. UEMako lehendakari Iraitz Lazkanok nabarmendu zuen moduan, “udalerrri euskaldunak babes-teaz gain, nola garatu behar diren adibide praktikoekin ikusteko ere aukera emango dute beka honetan saritutako ikerlanek. Horrelako ikerketak eta ekarpenak behar dituzte arnasmuneek, eta horrelako beka bat merezi zuen Iñaki Arregik ere”. Ikerlanak amaitu ondoren, 2020ko udazkenean UEMak antolatutako dituen jardunaldietan aurkeztuko dituzte.



### Garapen estrategien oinarriak

Joseba Garmendia (Zumarraga, 1968) antropologo, ekonomialari eta EHUko irakaslea urte askoan aritu da lanean tokiko garapen esperientzien inguruko proiektuetan. Orain, “tokiko garapen ekonomikorako estrategiak eraikitzeako marko kontzeptuala, arkitectura eta metodologia” lantzeko jaso du Iñaki Arregi beka, herri eta eskualde mailako garapen estrategien oinarriak teorikoki aztertzeke.



### Erdaldunen bizipenak aztergai

Enara Eizagirre (Azpeitia, 1993), Edurne Urrestarazu (Idiazabal, 1993) eta Ekhi Zubiriak (Hernani, 1988) osatutako ikerketa-taldeak, berriz, erdaldunek euskararekiko duten pertzepzioa aztertuko du. Zehazki, “udalerrri euskaldunetara 2005az geroztik iritsi diren jatorriz Euskal Herritik kanpoko erdaldunek zer-nolako bizipenak eta iritziak dituzten euskararekiko eta herriarekiko”.



## UEMAko KIDE IZATEA ERABAKI DU ALKIZAKO UDALAK

**UEMAko kide izatea erabaki zuen Alkizako Udalak urriaren amaieran egindako udal osoko bilkuran. UEMAREN Batzar Nagusiak abenduaren 14an egindako bilkuran onartu zuen eskaera eta, beraz, dagoeneko UEMAko kide den 87. udala da Alkiza. 349 biztanleko Gipuzkoako herria da Alkiza. Tolosaldean dago eta %91,3 dira euskaldunak. Alkizarekin, UEMAko kide diren 87 udalek 250.000 biztanle inguruko lurruna euskalduna osatzen dute. AGINTALDI BERRIAN mankomunitatera gehitu den lehen udala baldin bada ere, hurrengo hilabeteotan eskaera berriak helduko dira.**



Tolosaldeko herria da Alkiza. 349 biztanle ditu eta euskaldunak %91,3 dira.

Urriaren 29an egindako udal osoko bilkuran onartu zuen Alkizak UEMAko kide izateko eskaera egitea. Inaki Irazabalbeitia alkatearen hitzetan, "Alkiza arnagune izanik ere, ez dago euskararen normalizazioak dituen desfioetatik libre. UEMAko kide izateak desafio horiei aurre egiteko baliabideak eskainiko dizkigu, bai udalari berari dagozkion zereginetan baita gizartean eragiteko unean ere". 2016an argitaratutako datuen arabera, euskaldunak %91,3 dira Alkizan. Oro har euskaraz bizi dira herritarrak, baina udalerrri euskaldun gehienetan bezala, beheranzko joera islatzen dute datuek: 1996 (%96,9) eta 2016 (%91,3) urteen artean 5,6 puntu egin zuen behera euskaldunen indizeak. UEMAko kide izanda, egoera iraultzeko eta euskararen biziberritzeari hizkuntza politika sendo eta bateratuekin ekiteko asmoa adierazi du Alkizako Udalak.

## ERAGIN LINGUISTIKOAREN EBALUAZIOA EGITEKO JARRAIBIDEAK EMATEN ARITU DA UEMA, EUSKO JAURLARITZAREKIN BATERA



Araba, Bizkaia, Gipuzkoa eta Nafarroako herrietako ia berrehun teknikaririk ikasi dute udalek nola egin behar duten Eragin Linguistikoaren Ebaluazioa. Argazkian, Bergarako saioa.

**PROIEKTU ZEHATZEK UDALERRIETAN IZAN DEZAKETEN ERAGIN LINGUISTIKOEA LEGEZ AZTERTU BEHAR DUTE ARABAKO, BIZKAIKO ETA GIPUZKOAKO UDALEK, ETA TEKNIKARIEI JARRAIBIDEAK EMATEN ARITU DIRA UEMA ETA EUSKO JAURLARITZA. HAMAR PRESTAKUNTZA SAIO JASO DITUZTE TEKNIKARIEK, ETA APLIKAZIOA SORTU ETA ARGITALPENA ERE PLAZARATU DU EUSKO JAURLARITZAK.**

Alor honetan UEMA aitzindaria izan denez, Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako Sailak azken hilabeteotan eskuz esku landu du gaia UEMArekin, udaletako teknikariek Eragin Linguistikoaren Ebaluazioa egiteko metodologia eta urratsak ezagutu ditzaten. Aplikazioa ere sortu dute udalen esku uzteko. Udaletako teknikarier horren berri emateko eta lanerako jarraibideak zehazteko, hamar prestakuntza saio eman zituzten UEMAK eta Eusko Jaurlaritzak urrian. Bilbo, Azpeitia, Donostia, Gasteiz, Bergara, Tolosa, Donostia, Markina-Xemein, Durango, eta Iruñean, zehazki.



# EUSKARA eta TURISMOA

## EUSKARARI eta TURISMOARI BURUZKO JARDUNALDIA, LANERAKO ILDOAK AZTERTZEKO eta ERAGILEEN ARTEAN HAUSNARTZEKO

**Ehun bat lagun elkartu ziren azaroaren 21ean Orioko Arraunetxan, euskarak turismo eskaintzan zer-nolako lekua izan behar duen hausnartzeko, eta turismoak eta euskarak elkar elikatzeke modurik ote duten aztertzeke.**

UEMAk eta Udako Euskal Unibertsitateak *Euskara eta turismoa, aukerak eta arretaguneak* jardunaldia antolatu zuten azaroaren 21ean, Orioko Udalaren laguntzarekin. Bertako Arraunetxan euskararen eta turismoaren inguruko ehun bat eragile, teknikari, erakunde, enpresa eta aditu elkartu ziren, egun osoan zehar izan ziren hitzaldiak, aurkezpenak eta mahai-inguruak jarraitzeko.

Turismoak euskararen egoera soziolinguistikoan eragina duela jakinda, eta era berean turismoa hainbat udalerrri txikirentzat garapenerako bitartekoa izan daitekeela ikusita, bi sektoreen artean elkarlanean aritzeko, harremanak sendotzeko, eta hausnarketarako eta lanerako ildoak zabaltzeko beharra agerian geratu zen jardunaldiaren amaieran.



Alor ezberdinetako gonbidatuak aritu ziren egun osoan zehar aurkezpen, hitzaldi eta mahai-inguruetan. Goian, ezkerretik eskuinera, Iker Goiria, Esther Facchin, Idurre Lukas eta Gotzon Barandiaran, Jon Elzok dinamizatutako mahai-inguruan. Ezkerraldeko argazkian, mikrofonoarekin, Jean-Ives Agard, Sorbonan Antropologia Sozialean doktorea eta Sauvignaceko goi eskolako Turismoko irakaslea; Okzitaniako Perigord eskualdean hizkuntza, kultura eta turismoa uztartzeko egindako ahaleginaren berri emateko gonbidatu zuten jardunaldia.

## UDALERRI euskaldunen BERRI, egunero: URTE osoan zehar, sarean etenik gabe jaso daiteke UEMAren informazioa UDALERRI euskaldunen informazioa

**UEMA.EUS webgunean ez ezik, TWITTER, FACEBOOK, TELEGRAM eta OHIKO sare BIDEETAN ETENIK GABE ZABALTZEN DU UEMAK informazioa, HIZKUNTZA POLITIKARI eta UDALERRI euskaldunei BURUZKO albisteak nabarmenduz.**



Webgunea: [uema.eus](http://uema.eus) · Twitter: [@uema\\_eus](https://twitter.com/uema_eus) · Facebook: [UEMAeuskaraz](https://www.facebook.com/UEMAeuskaraz) · Telegram: [t.me/UEMAeus](https://t.me/UEMAeus)